

Ipuinaren bitartez irakurketa-idazketa sustatzeko eta hezkidetzan hezteko proposamenak

Autor: Erdoiza Garcia, Rebeka (Maestra. Especialidad en Educación Primaria y PT, Maestra de Educación Primaria).

Público: Lehen Hezkuntzako 3. maila. **Materia:** Euskera eta Balio sozial eta zibikoak. **Idioma:** Euskera.

Título: Ipuinaren bitartez irakurketa-idazketa sustatzeko eta hezkidetzan hezteko proposamenak.

Resumen

Ipuinak kultura (ikurrak, balioak, eginkizunak) transmititzen duten oinarriko baliabide hezigarriak dira. Halere, sexuaren arabera balio bereizleak igorri ditzakete. Artikulu honetan, istorio ez sexista bat euskarri hartuta, irakurketa-idazketa eta hezkidetzaz jorratzeko lan sekuentzia bat planteatzen da. Balio positiboetan eta berdintasunean errotutako ipuina proposatzen dugu lan egiteko, nesken eta mutilen garapen osoa bultzatzeko. Horretarako ahozko tradiziozko ipuinei ikuspuntua aldatzeko burutapenak agertzen ditugu. Benetako elkarbizitza emateko, beharrezkoa da ipuinen bidez igortzen ditugun mezuak berrikustea, aztertzea eta kritikatzeta. Horrela berdintasunezko gizarte zuzenago bat eraikiko dugu, estereotipoak alboratuz.

Palabras clave: Irakurketa-idazketa, hezkidetzaz, estereotipoak, balioen heziketa.

Title: Fostering reading-writing through storytelling and suggestions for educating on co-education.

Abstract

Storybooks are a basic and educational resource for the transmission of culture (symbols, human values...). However, different morals could be sent depending on the genre. On the following article and based on a non-sexist story, a work sequence for reading-writing and co-educating is proposed. A story of equality and positive values, promoting boys' and girls' integral development. In order to do this, a change of viewpoint in traditional storytelling is presented. For a meaningful coexistence, it is essential to examine, study and criticise the messages sent through the stories so that an equal, rightful society is built, while avoiding stereotypes.

Keywords: Reading-writing, co-education, stereotypes, education in values (ethics).

Recibido 2018-11-18; Aceptado 2018-11-26; Publicado 2018-12-25; Código PD: 102089

1. SARRERA

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin Euskara arloan jarduteko lan-sekuentzia bat aurkeztuko dugu. Irakurketa-idazketa lantzeaz gain, funtsezko elkarbizitza sustatuko dugu. Abiapuntua ohikoa ematen duen ipuin bat izango da, ikusmoldea aldatuko diogu eta elkarrekin hezkidetzaren inguruko gogoeta egingo dugu.

Lan-sekuentzia hau aurrera eramateko gelako arbela digitala eta ikasle bakoitzaren txostena erabiliko da. **Babette Cole**-ek idatzitako eta Destino argitaletxeak kaleratutako liburua oinarritzat hartuko dugu. Egun, liburua ez dago salgai eta oso zaila da liburutegietan aurkitzea. Horregatik, interneten aurkitutako euskarazko egokitzapen digitala erabiliko da (bideoa), eta euskarri digital horri egindako idatzizko ekarpenaz ere baliatuko gara.

2. LIBURUAREN AZTERKETA

“Errauskin printzea” deituriko liburuaren egilea **Babette Cole** (1949-2017) idazle eta irudigile ingelesa dugu. Jatorriz *Prince Cinders* izenarekin argitaratu zen 1987. urtean.

Urtez urte ahoz helazari eta idatziz jasotako (**Charles Perrault** frantziarra, **Giambattista Basile** italiarra, **Grimm** anaiak alemaniarrak) maitagarrien ipuin klasiko baten moldaketaren aurrean gaude. Liburuaren izenburutik ondorioztatu dezakegu, berrinterpretazio honen elementurik oinarrikoena, protagonista nagusiaren generoaren aldaketa dela. Errauskiñeren istorio moderno eta desitxuratua da, paper tradizionalak atzekoz aurrera jarritz.

Kasu honetan ere, ipuinaren egitura guztiak agerian daude **hasierako egoera**, **korapiloa** (arazoa, ekintzak, konponbideak) eta **bukaerako egoera**.

Ipuinaren argumentua bidegabeko zapalkuntza eta ondoren saria lortzea da. Protagonista gizonezkoa da eta umore ukituak ditu. Istorioaren protagonista pertsonaia baxua, zarpaila, mehea eta pikortak dituena da. Anaiak bestelako irudia dute, guztiak handiak eta iletsuak dira. Beraiek bezalakoa izatea amets egiten du. Errauskin printzeak etxea garbitzen ematen du egun guztia, anaiak diskotekan dantzan dauden bitartean. Maitagarri batek, saiakera asko egin ondoren, bere desioak betetzen ditu, baina emaitza ez da espero bezalakoa. Marradun bainujantzi bat soinean daraman munstro handi eta iletsuan bihurtzen du. Errauskinek ordea, bere itxuraldaketa emaitzaren berri ez daki...

Babette Cole-k umorez betetako ikuspegi batetik hausnartzera garamatza. Literatura klasikoan generoen rola eta gaur egun beraietaz dugun ikuspegiaren eztabaidagunea irekitzen du. Praktika honek, eremu literarioa gainditzen duen gogoeta egiteko aukera ematen du gizarte-esparruraino helduz: genero berdintasuna, familiarterko gehiegikeria egoerak, gizarte bazterketa, autoestimua...

Ilustrazioen estiloari dagokionez, bere lanetan ohiko den bezala, Babette Cole-k tindagaiak eta urmargo kontzentratuak erabili ditu.

Ipuin hau lantzerakoan, ikasleek gure bizitzan egon behar den, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egiazkoa, egingarria eta berezkoa dela ikusi eta ikasi behar dute.

Ipuin tradizioan emakumezkoen eta gizonezkoen munduak ezberdintzen dira. Gizonezkoen munduan, printze ausartak, errege boteretsuak, munstro basatiak, gerlari kementsuak etab. daude. Bestetik, emakumezkoen munduan, eraman handiko printzesak, erregeen emazteak, sorgin gaiztoak, amaorde zitalak, neska beldurtiak etab. agertzen dira.

Bi mundu horiek *jarrera* desberdinak egotea ahalbidetzen dute: alde batetik gizonezko izukaitzak, adoretsuak, indartsuak, abenturazalek, oldarkorrak...; emakumezkoak pinpirinak, gizagaixoak, ederrak, pasiboak, otzanak, langileak, esaneakoak...

Lan egiteko hautatu dugun ipuin honetan, ordea, ohiko Errauskiñe ipuinaren itxuraldaketa dago. "**Errauskin printzea**"-k emakumezkoen egokitutako portaerak bere gain hartzen ditu.

3. LAN-SEKUENTZIAZIOA

Bi astetan zehar Euskara arloan lan egiteko lan-sekuentzia aurkeztuko dugu. Hau guztia aurrera eramateko, bitarteko digitalak eta paperezkoak erabiliko ditugu. Ikasle bakoitzak txosten bat izango du, talde handian, txikian nahiz bakarka lan egiteko.

Solé-ren (1992, 1997) **irakurketaren** definizioa honako hau da: *Irakurketa irakurle eta testuaren arteko interakzio-prozesua da. Prozesu honen bitartez, irakurleak irakurtzean dituen helburuak betetzeko informazioa bilatzen du.*

Zehaztapen hau aintzat hartuta, ikasleak estrategietan trebatuko ditugu beraien irakurketaren ulermena hobetzeko.

Ikasleekin testua lantzeko ekintza mota ezberdinak egingo ditugu. **Irakurketa burutzeko estrategiaren** zerrenda hau da: *Irakurri baino lehenagoko ekintzak, irakurri bitarteko ekintzak eta irakurri ondorengo ekintzak.*

IRAKURRI BAINO LEHENAGOKO EKINTZAK

Ekintza hauekin ikaslea irakurketarako prestatuko dugu: batetik, gaia girotzeko eta bestetik, irakasleak ikasleak gairi buruz dakiena antzemateko eta era askotako aurrezagutzak pizteko. Ekintza hauek testua ulertzeko ezinbestekoa den testuingurua emango digute. Testua irakurri baino lehen lagungarria da oinarrizko hiztegia lantzea.

- Ozenki pentsatu: Testua taldeari aurkezten zaionen, galderak eginez eta ideiak gidatuz ikasleak irakurketarako prestatuko ditugu.
- Aurrezagutzak piztu: Edukiaren inguruan aurretiazko ezagutzak aktibatuz eta denon artean gai orokorra azalduko dute. Irakasleak komenigarria baderitza, testuak eskatzen dituen ezagutza batzuk zuzenean emango ditu: egileari buruzkoak, edukiari buruzkoak, hiztegiari buruzkoak etab.
- Aurreikuspenak egin: Testuak kontatuko duenari buruzko aurreikuspenak egingo dituzte.

IRAKURRI BITARTEKO EKINTZAK

Aldi honetan ikasleak testua nola ulertzen ari den egiaztatuko dugu, eta ikasleak ulertzen ez dituen hitzen esanahia argituko dugu.

- Ulermena egiaztatu: Oinarrikoak diren ideietan gelditu, ikaslea ulertzen ari den ala ez egiaztatzeko irakurritakoaren gaineko galdera sinpleak egin, oinarriko ideiak parafraseatu, zalantzak argitu etab.
- Testuinguruaren bidez hitz berrien esanahia ondorioztatu: Ikasleari lagundu inferentziatzko galderak eginez hitz ezezagunaren esanahia bilatzen.
- Kontzeptu berriak ikasitakoarekin lotu: Ikasleak irakurtzeaz batera, aurretik ikasitakoarekin loturak egiten saiatuko gara.
- Irakurritako atalen edukia laburbildu: Irakurritako edukien ahozko laburbiltzeak egingo dituzte.

IRAKURRI ONDORENGO EKINTZAK

- Ozenki pentsatu: Talde handian irakurri dutenaz hitz egingo dugu. *“Zerbait berria ikasi dugu?”* Ikasleek ikasi dutena azaltzea oso garrantzitsua da. Helburu horretarako, galdera itxiak ez ditugu erabiliko, baizik eta, esaldi osoaren produkzioa egitera behartuko ditugu. Galderak irakurketaren helbururantz hurbildu behar dute ikaslea, horrela, ikasleria idatzizko lana (txostena) egiteko prestatuko dugu.
- Laburpenak egin: Laburpena teknika baliotsua da. Irakasleak daukan asmoaren arabera teknika hau moldatu daiteke (fokua ideia nagusian, ekintza batean edo pertsonaia batean jarritz).
- Irakurritakoa berrerabiltzea eta ezagutza berria eraikitzea.

Irakurketa eta ulermen ekintza hauek, ikasleen arteko elkarrekintza, parekoen arteko elkarrizketa sustatu eta testuaren esanahia elkarrekin eraikitzeko aukera ematen dute.

1. SAIOA

GIROTZEA:

- ✓ Gelara sartu bezain pronto eta ikasleen harridurarako, ikasgelaren erdian hautsa kentzeko trapuak, erratza, amantala, xaboi potea, zoru-garbigailua eta plastikozko eskularruak lurrean aurkituko dituzte.

Irakasleak bideratuta gauza guztiak eskuartean hartuko dituzte, izenak aipatu, non eta zertarako erabiltzen diren esango dute. Beraien etxeetan objektu horiek nork erabiltzen dituen galdetuko diegu. Erantzunen arabera zergatik eta arrazoiak eskatuko dizkiegu. Irakasleak landu nahi duen gaia bideratuko du.

- ✓ Ondoren, ikasleak zirkuluerdi bat osatuko dute eta arbelari begira eseriko dira. Arbelean, irakurriko den ipuinaren azala agertzen da, irakasleak bere aurkezpena burutzen du.

1. ATAZA

- Ipuinaren izenburuari arreta jarri. Zergatik ipuinak dauka izen hau?
- Zuen ustez, nortzuk izango dira protagonistak?
- Ipuin honek besteren bat dakarkizue gogora? Zein? (birgogoratu ipuina)
- Ipuina irakurri gabe, bukaera zein den kontatu dezakezu?

Solasaldi laburra egingo da.

- ✓ Gelako zerrenda alfabetikoa jarraituz, ikasle bakoitzak ipuinaren orrialde bat irakurriko du.

*Gogoan hartu behar dugu, **irakurketa burutzeko estrategiaren pausuak** ondo garatu behar ditugula.

2. SAIOA

Irakasleak ikasleei ipuinaren laburpena ozenki kontatzeko eskatuko die. Guztien ekarpenekin egingo da.

Gero irakasleak ikasleei arbela digitalean ipuina ozenki, astiro eta ondo ahoskatuz irakurriko die. Zalantzak eta ekarpenak kontutan hartuko dira.

Jarraian taldeka eserita bakoitza bere txostenarekin lanean hasiko dira. Irakasleak azalpenak arbela digitalaren bitartez burutuko ditu.

Ikasleek ipuinaren ikusketaren inguruko ariketak norbanako txosten batean egingo dituzte. Irakasleak galderak ozenki egingo ditu. Ikasleen erantzunak eta ekarpenak aditu ondoren, denok adostutako erantzunak idatziko dituzte.

2. ATAZA

- Idatzi *Mari Errauskin* eta *Errauskin pintzearen* ipuinen arteko lau berdintasun.
- Idatzi *Mari Errauskin* eta *Errauskin pintzearen* ipuinen arteko lau ezberdintasun.
- Nolakoa da maitagarria? Zer egiten du?
- Zeintzuk dira maitagarriak erabiltzen dituen hitz magikoak?
- Nolakoa da Errauskin printzea? Aipatu ezaugarri fisiko batzuk.

3. SAIOA

Irakasleak ipuinari buruzko galderak burutzen ditu, eta ikasleen ekoizpenekin laburpena ozenki egingo da. Ikasleak binaka txostenarekin lan egiteko prest daude.

3. ATAZA

- Deskribatu printzearen hiru anaien ezaugarri fisikoak.
- Nor da ipuinaren pertsonaiarik alaiena? Zergatik?
- Deskribatu maitagarriaren itxura.
- Maitagarriak zenbat hutsegite egin zituen sorginkeriak egiterakoan? Aipatu.
- Zein da printzearen desiorik handiena?
- Nola deitzen da printzesa?

4. SAIOA

Aurreko saioko hasierako dinamika bera egiten da. Txostenarekin banakako lana egingo dute.

4. ATAZA

- Zergatik uste duzu printzeak bere burua hain eder ikusten zuela ispiluan islatuta?
- Zer galdetu zuen autobus geltokira heldu zenean?
- Zer eskatu zion printzesak maitagarriari?
- Zure ustez zein da istorioaren gauzarik dibertigarriena?

5. SAIOA

5. ATAZA

- Idatzi beste amaiera bat ipuinarentzat. Ondo planifikatu eta pentsatu idatzi nahi duzun hori.

6. SAIOA

6. ATAZA

Guztion artean ariketak zuzendu aurretik, ikasleei erantzunak aldatzeko aukera emango zaie. Horretarako, arbela digitalean ikus-entzunezko baliabidea (bideoa) ikusiko dute.

Ipuina gustukoa izan duten galdetuko diegu, eta zergatik.

7. SAIOA

7. ATAZA

Ipuinak islatzen duen ikasbideari buruzko solasaldi laburra egingo da. Mari Errauskiñen istorioa ere gogora ekarriko dugu.

Ikasleek ozenki, bi ipuinetako pertsonaien ezaugarrien arteko konparaketa egingo dute.

Lagungarri gisa, hauexek dira irakasleak luzatutako galderak:

- Nor da protagonista?
- Aipatu emakumezko protagonistaren ezaugarri fisikoak.
- Aipatu gizonezko protagonistaren ezaugarri fisikoak.
- Nork egiten ditu etxeko lanak?
- Istorioan nork laguntzen du hurkoa?
- Nolakoa da maitagarria?
- Zer lortu nahi du istorioaren protagonistak?
- Zer galdu zuten sorginkeria hautsi zenean?
- Pertsonaia gaiztoak, emakumezkoak edo gizonezkoak dira?

8. SAIOA

8. ATAZA

- Irakasleak ahoz “zer gertatuko litzateke...?” galderak egingo ditu. Adibidez, zer gertatuko litzateke Errauskin etxea garbitzen gelditu ordez, anaiekin diskotekara dantza egitera joango balitz? Zer gertatuko litzateke...? etab.
- Emakumezko heroiak asmatu ditzakegu. Emakumezko ausartak, adimentsuak...
- Taldeka kartoi mehe batean, izenburua, egilearen izen-abizenak, pertsonaien marrazkiak eta laburpen txiki bat idatziko dute.

4. BALORAZIOA

Lehen Hezkuntzako 3. mailan lan-sekuentzia hau martxan jartzeak aukera eman dit, alde batetik, balioen hezkuntza zeinen garrantzitsua den baloratzeko, eta bestetik, irakurketa deskodetzea baino askoz gehiago dela baieztatzeko.

Hezkidetzan, irakasleok gure gain hartu behar dugu berdintasunean heztea, gutako bakoitzaren erantzukizuna delako. Lan zail horretan, ipuinaren euskarria ondo erabiliz gero, ikasleek balioak eta arauak egoki barneratuko dituzte.

Zalantzarik gabe, ikasleek irakurtzen jakiteko, etapa guztietan, irakurketak tratamendu hezigarria eta egiazkoa izan behar du ikastetxean.

Dinamika honetan partaide eta protagonista izan diren ikasleak, interesa eta motibazio handia agertu dute. Haien artean, aberastasun eta sakontasun nabarmeneko ekarpenak eta elkarrizketak sortu dira.

Arestian adierazi bezala, jardueraren ebaluazioa guztiz positiboa izan da.

Bibliografía

- SOLÉ, I. (1992). Estrategias de lectura. Barcelona: Editorial Graó.
- AITTU! Pako Eizagirre. (Blog) Errauskin printzea. Iturria: <https://www.aittu.eus/?q=node/91>
- Azalpen testuak idazten. (Blog) Frantzisko Deuna Ikastetxe Publikoa. Baliabide didaktikoak. Iruña-Pamplona. Iturria: <https://sites.google.com/site/hirugarrenziklokotxokoa1/euskara-lantzen/azalpen-testuak-sortzen>
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA. BERRITZEGUNE NAGUSIA. (2013) Irakurketa lantzeko orientabideak. Lehen Hezkuntza. Iturria: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_lenguas/adjuntos/500010e_Pub_BGN_irakurketa_LH.pdf
- IGNACIOALDEKOA1. (2013ko ekainaren 12an). Errauskin printzea td. SLIDESHARE-en. Iturria: <https://www.slideshare.net/ignacioaldekoa1/errauskin-printzea-td>
- PC ROMERO. (2014ko azaroaren 26an). El principe Ceniciento dossier. ISSUU-n. Iturria: https://issuu.com/pcromero/docs/el_principe_ceniciento._dossier
- SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA. (2007). Irakurketaren definizioa. Iturria: http://didakteka.santurtzieus.com/index.php/Irakurketaren_definizioa.